

Elgohmar - 12788 zemb.
XXX ar tea - 2023-03-10

TOKIMBA BARREN



Azoka du bizimodu eta bizipoz

Nordin Ouafa



ATXUTXIAMAİKAREN UDABERRIKO OPORRALDIA 2023

HH2-HH5

TXOKOAK 9:00-13:00

Sarrera eta irteera malguak

1. txanda (apirilak 3-5)
 2. txanda (apirilak 11-14)
- Bi txandak

Ohikoa / Bazkideak

36€ / 32€

48€ / 43€

76€ / 68€



ATXUTXIAMAİKAREN ETA LUDOTEKAREN UDABERRIKO ESKAINTZA 2023

ABIXADAN (LH1-3)

APIRILAK 3, 4, 5

TRIBUEN ASTEA

9:00-13:00

SORTU ZURE ETXOLA
TRIBUEN ARTEKO LEHIAK
ETA ABAR

Prezioa: 36€ (bazkideek, 32€)

APIRILAK 11,12,13,14

ZIENTZIAREN ASTEA

APIRILAK 11: DURANGORA IRTEERA 9:00-16:30

APIRILAK 12: TIE DYE KAMISETAK 9:00-13:00

APIRILAK 13: LABORATORIUM-ERA IRTEERA 9:00-16:30

APIRILAK 14: SUKALDARITZA ESPERIMENTALA 9:00-13:00

Prezioa: 69€ (bazkideek, 62€)

Bien prezioa: 94,5€ (bazkideek, 85€)



ALDENIK ALDEN (LH4-6)

APIRILAK 3, 4, 5

LASTURREN EGONALDIA

IRTEERA: 10:00 ITZULERA 17:00

Prezioa: 72€ (bazkideek, 65€)

APIRILAK 13

ILUNTZE-PASA

18:00-22:00

Prezioa: 12€ (bazkideek, 11€)



IZEN-EMATEA

Martxoaren 6tik 17ra

Elgoibarko Izarraren bulegoan

Udal Ludotekan

www.elgoibarkoizarra.eus

PLAZA MUGATUAKI

Eskaintako plazak baino
eskaera gehiago jasoz gero,
zozketa egingo dugu.

INFORMAZIO GEHIAGO

ELGOIBARKO IZARRA

Aita Agirre kulturgunea 3, 3. ezk.

943 741 746

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

UDAL LUDOTEKA

Gabriel Kurutzelaegi, 6

943 748 883 - 656 740 793

ludotekaelgoibar@gmail.com

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

INFORMAZIOA UDALEAN:

943 741 050

gazteria@elgoibar.eus

Antolatzaileak



ZEHAR
HEZKETA ETA PROGRAMAK

Babeslea



Laguntzaileak



Euzko Jaurlaritzaren Gobernua

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etzegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Nagusiak nagusi



**"Hobe lukete
gogoan izatea adinekoak
gehiengoa izango direla
hemendik gutxira"**

Pneumonia pasatu nuen joan zen urtean estreinakoz. Izerdiak, eztulak eta egonezinak erasanda egin nituen egun batzuk, aukeran gehiegitxo. Kendu ere kendu zizkidan jateko gogoia, erreserbako kilotxo batzuk eta baita indarrak ere. Ezin aldaparik igo, ezta oinez ibilalditxoia egin ere asko nekatu gabe. Agure baten moduan geratzen da bat, indar justuekin edozertarako.

Agure ez dakit, baina Eustatek dioenez, 2050. urtean biztanleriaren ia %40k 65 urte baino gehiago izango ditu Euskal Herrian. Burua, akaso, gazte askok baino azkarragoa izango dute; nekez, ordea, gorputzeko indarrak, arintasuna eta erreflexu hobeak. Aldapa gutxiko eta eskailera eta koska gabeko ibilbideak lehenetsiko dituzte, eserlekurik ez dituzten bideak ekidin eta, seguru asko, buruan izango dituzte etxetik irten baino lehen atsedean hartzeko lekuak; puxika bete-beteta daukatenerako egin beharrak lasai egiteko, tartean. Eta zer esanik ez, ongi asko jakingo dute non dauden udako egun beroenetan gerizpe freskoa ematen duten zuhaitzez jantzitako plazak eta baita itzal gozoko terrazak dituzten kafetegiak ere. Euren mugikortasuna eta bizi-kalitatea hobetzen dituzten gakoak guk baino hobeto ezagutzen dituzte ziur asko.

Aldiz, hirigintza arduradunek hainbat legedi, arau tekniko, berme ekonomiko eta bestelako baldintzak ondo ezagutzen dituzte, baina sarritan pertsona nagusien beturrekoak jartzea eta eurekin hitz egitea ahazten zaie, pertsona zaurgarri horien beharrei jaramonik egin gabe kaleak eta plazak eraikiz. Hobe lukete gogoan izatea adinekoak gehiengoa izango direla hemendik gutxira.

Bigarren mailako hiritar ez ditzagun bihurtu, faborez, eurentzako oztupo betetako hiriak eraikita.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, martxoaren 4an, ospatutako XXIII. Pilota Eguna antolatzen lagundu ziguten Elgoibarko Lagunak Pilota eskolako arduradunei, familiei, ikasleei eta gainerako guztiei.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Pilota Eguneko Batzordea

Liztor asiarrak harrapatzeko ikerkera pilotu berria martxan

Martxoaren 6tik apirilaren 30era bitartean, Bidasoa eta Oarsoaldeako eskualdeetan liztor asiarrak (*Vespa velutina*) harrapatzeko

udaberriko kanpainarekin hasi dira. Bertako erlezainen kexei erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bidasoako Erlezain Elkarteko erlezainekin elkarlanean, ikerketa pilotu bat jarri dute martxan Errenterian, Oiartzunen, Pasaian, Lezon, Irunen eta Hondarribian, tranpa selektiboan eraginkortasuna baloratzeko.

Ikerketaren helburua da ziurtatzea tranpa selektiboetan liztor asiarra bakarrik erortzen dela, eta bertakoa dugun liztorraren (*vespa crabro*) kopurua ahalik eta txikiena izatea. Horretarako, bi tranpa mota jarri dira: EVA eta Jabeprode.

Maiatzaren 1ean jasotzen diren datuak esanguratsuak badira, 2024ko udaberrikan tranpatze kanpainia zabalago bat egiteko aukera aztertuko da Gipuzkoa osora. Agian Gipuzkoa tranpaz estaltzeko saiakera egingo da... agian liztor asiarraren habiak gutxituko dira... agian 2024ko udan gure erleak lasaiago biziko dira... Emaitzen zain geratuko gara, eta gero gerokoak.

A.I.



II. URTEURRENA

Jose Mari Arruti Urbieta

2021eko martxoaren 8an hil zen, 85 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzean.

Zure familia



Tomas Conde Borrajo

2023ko martxoaren 4an hil zen, 65 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.**





Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Muralak ere ez dira errespetatzen herri honetan:

"Miserablea izan behar da gero "zureetako baten" lana, zurearen antzerako afizioa duen beste baten artelana, horrela zikintzeko eta mespresatzeko. Ecce Homoaren irudia zaharberitzen saiatu zen Zaragozako emakume hark, sikiera, intentziorik onenarekin egin zuen. Hemen errespetu falta besterik ez dut ikusten. Grafitiek edo kaleko arteak izugarri dotoretu eta jantzi dezakete inguru bat, Santa Anan margotu duten muralarekin ikusi ahal izan dugun moduan. Aldiz, sinadura moduko grafitiz josita dago herria, mordo bat daude bidegorrian edo Pilar egon zen orubean, adibidez. Pertsonalki



ez ditut gogoko, baina artetzat ere hartzen dute zenbaitzuk. Uste dut nahikoa horma dagoela leku horietan sinadura horiek egiten jarraitzeko".



Zergatik ez dute antolatzen HHko umeentzako ipuin kontaketa saiorik?:

"Tarteka ipuin kontalari saioak egoten dira Udal Liburutegian, baina beti LHko ikasleentzako izaten dira, eta iruditzen zaigu HHko umeek ere gustura hartuko luketela

parte". Udal Liburutegitik ondorengo erantzuna eman dute: "Esperientziak esaten digu HH5eko haurrak txikiegiak direla talde handietan ipuinak entzuteko. Horregatik, kurtsoa aurrera joan ahala gonbidatzen ditugu saioetara, Aste Santu ondoren".



Zergatik ez da egoten botikariek guardian gauzez Elgoibarren?:

"11.000 biztanletik gorako herria da gurea, eta beste hainbat zerbitzuren artean, lau botika ditugu. Hala ere, gauzez urte osoan guardian dagoen botika bakarra Eibarkoa da. Iruditzen zait Elgoibarrek behar duela gaueko botika zerbitzua". BARREN astekariak Elgoibarko botikari batengana jo du erantzun eske: "Elgoibarko anbulatorioa gauzez itxita egonda ez dauka zentzu handirik farmazia gauzez guardian egotea. Urte batzuetan eman genuen gaueko zerbitzua txandaka, baina gero anbulatorioa 00:00etan ixten hasi ziren, eta guk ere ordutegia moldatu egin genuen. Pandemiaren ondorioz, anbulatorioa 17:00etan ixtea erabaki zuten, eta horrela dagoen bitartean ez dauka zentzurik Elgoibarren gauero botika bat zabalik

egoteak. Larrialdi zerbitzua Eibarren eta Mendaron ematen dute gauzez, eta Eibar denez bailarako herririk handiena, bertan zentralizatu zen gaueko botika zerbitzua. Eusko Jaurleari esan izan diogu larrialdi zerbitzua eskaintzen duten zentroan bertan eman beharko luketela gau hori pasatzeko behar den botika. Era berean, herritarrek jakin behar dute zer den larrialdia eta zer ez. Gauzez zabalik egon ginen epealdian azterketa egin genuen jakiteko zenbat bezero etortzen ziren benetako larrialdiekin. Antibiotiko beharra da larrialdia, adibidez, baina txupetea edo umearen esnea falta izatea, ez da larrialdia, eta herritarrek hori ulertu egin behar dute. Gutxi ziren benetako larrialdiak, eta datu horiek Botikarien Kolegioan aurkeztu genituen. Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, gauzez ixteko baimena eman ziguten".



Txalo bat Eñaut Izagirreri 'Into the Ice' erakusketagatik:

"Benetan interesgarria *Into the ice* espedizioari buruzko argazki erakusketa. Zorionak honen sortzaileetako bat izan den Eñaut Izagirre geografo eta glaziologoari. Elgoibartarrak mundu zabalean erreferente!".



Igogailu eta eskailera mekanikoetan egin dituzten "ekintza bandalikoak" salatu ditu Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute igogailu publikoen eta eskailera mekanikoen aurkako "ekintza bandalikoak" gorakada nabarmena izan dela azken asteetan. Azken erasoak Lerun industrialdean dagoen igogailuan gertatu dira. "Igogailuei eraso egin diete harriak jaurtiz, sistemak hautsiz eta atek beren lekutik ateraz". Udalaren kalkuluen arabera, konponketa bakoitzak 3.000 eurotik gorako kostua du, gutxi gorabehera: "displayak 2.994,11 euro balio du, eta beirateria konpontzeak 547.39 euro". Duela aste batzuk Urazandiko igogailu berrietan beste "ekintza bandaliko sorta bat" izan zela ere jakinarazi dute, hiru eraso hain justu ere, eta konponketen balioa 400 euro ingurukoa izan zela.

Azpiegitura horiek identifikazio-sistemak dituzte, kamerak igogailuen kasuan, eta Udalak kalteak erreklamatzeko prozedura hasi du. Udaltzaingoa eta Ertzaintza jarduera horien jarraipena egiten ari direla zehaztu dute. Udalak arduraz eta eskuzabaltasunez jokatzeko eskatu du, eta herritarrei eskatu die ekintza bandaliko horien berri izanez gero, Udaltzaingoa jakinarazteko, 943 741 394 telefono-zenbakira deituta.

Hilaren 17ra arteko epea dute dendariak bono kanpainan izena emateko



Elgoibarko Udalak beste bono kanpaina bat jarriko du martxan herriko dendarietara laguntzeko, eta interesa duten dendek martxoaren 17ra arteko epea dute izena emateko. Udalak 30.000 euro inbertituko ditu, 2022ko kanpaina bakoitzean baino 5.000 euro gehiago, eta 4.000 merkataritza-bonu kaleratuko ditu. Herritarrek %25eko deskontua izango dute egindako erosketetan. Aurreikuspenen arabera, bonuak martxoa amaieran egongo dira eskuragarri, eta erosketa egiten den unean bertan erosi beharko dira establezimenduetan. Egindako gastuak gutxienez 5 eurokoak eta gehienez 60 eurokoak izan daitezke. Bonuak maiatzaren 26a arte trukatu ahal izango dira, betiere dendak egun horretara arte bonuak baditu. Udaletik jakinarazi dute 4.000 bonuak "modu ekitatiboan" banatuko dituztela denda guztien artean.

Ramadanaren inguruko hitzaldia antolatu dute biharko Elgoibarren

Auzoko familiak egitasmotik Ramadanari buruzko hitzaldia antolatu dute Elgoibarren, biharko (12:00). Asociación Cultural Onda Euskadiko kideek

emango dute hitzaldia, Aita Agirre kulturagunear, eta ondoren, mokadua egingo dute bildutako guztiek han bertan Marokoko jakiekin.

Lan baldintzak hobetzea eskatu dute Elgoibarko kirol langileek

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak azpikontrataturako BPXport enpresako kirol langileek egoera prekarioan lan egiten dutela salatu dute, eta lan baldintza duinak eskatu dituzte. "Nekatuta gaude prekarietateaz, nazkatuta gaude enpresa piratekin eta Patronatuarekin", adierazi dute ELA sindikatuaren bidez zabaldu duten oharrean. 2012an hartu zuen BPXport enpresak Kirol Patronatuko langileak kudeatzeko ardura: "Duela 11 urte azpikontrataturako enpresak bost hilabete soldatarik gabe laga gintuen. Hori dela eta, Kirol Patronatuak beste lizitazio bat atera zuen, eta BXPport enpresari eman zion zerbitzua. Enpresa horrek, Patronatuaren adostasunarekin, soldata murrizketa garrantzitsu bat sinarazi eta antzinatasuna eten zigun, kaleratzeko mehatxuarekin. Hitzarmenik gabe eta 2012an kobratzen genuena baino soldata txikiagoarekin gaude", adierazi dute. ELA sindikatuak dio, Elgoibarko kasuan, urtean 80.000 euro baino



gehiagoko irabazi gordina duela enpresak eta apenas dutela gasturik. "Ez dute instalaziorik, ezta materialik ere, langileak azpikontratatzeaz arduratzen dira soilk. Izugarrizko onura izan arren, ez dute negoziatu nahi langileekin, ez daude prest gure lan baldintzak hobetzeko". Kirol Patronatuari eta Udalari ere azalpenak eskatu dizkiete langileek, enpresaren mesedetan ari direla uste baitute. Kirol langileek salatu dutenez, Kirol Patronatuak "behin eta berriro" egin die kale. Elgoibarko Udalarekin harremanetan jarri da BARREN eta lan gatazka honetan "bitartekari lanak" egiten jarraituko dutela erantzun dute, "ahalik eta lasterren irtenbide bat topatzeko, eta, betiere, herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena ematea bermatze aldera".

Aitziber Aranberri eta Maddalen Iriarte solasean aritu dira Bilgunean



Elgoibarko EHBilduk Aitziber Aranberri Elgoibarko Udalerako alkategaiaren eta Maddalen Iriarte Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaiaren arteko solasaldia antolatu zuen. Bilgunean egin zuten martitzenean, eta aurrera begirako erronkei buruz jardun zuten, ilusioz eta itxaropentsu. Eneritz Azkuek gidatu zuen solasaldia. Martxoaren 14an Udal Hauteskundeetarako Bilduren hautagaitza aurkezteko eta herri-programa osatzeko bilera egingo dute, 19:00etan.

Stock azokako zozketaren sariak banatu ditu Txankakuk

Stock kale azoka egin zuten joan zen asteburuan Txankakua Merkatarik Elkarteko dendariak, eta euren saltoki atarietara atera zituzten produktuak, prezio merkeagoan. Egun horietan erosketak egin zituzten herritarren artean 100 euroko lau erosketa bono zozkatu zituzten: Edurne Gurrutxaga, Laura Diez, Esther Ortube eta Mari Jose Arruti izan dira saridunak.



Urriaren 28an izango da Kintoen Eguna



Pandemiaren eraginez azken urteotan bertan behera geratu den Kintoen Eguna berreskuratuko dute aurten. Hirugarren edizioa izan da aurtengoa eta urriaren 28an egingo dute. Kinto bakoitzak bere bazkaria antolatu beharko du, eta iluntzean jai giroko ekitaldiren bat antolatuko dute Maalan, Udalaren laguntzarekin. Egun hori antolatzeko koordinazio taldea sortu nahi dute, kinto bakoitzeko ordezkariekin. Talde horretan sartzeko interesa dutenek kintadenegunaelgoibar@gmail.com helbidera idatzi behar dute.

Gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Elgoibarko Udalak Gizarte Larrialdietarako 2023ko Laguntzak (GLL) eskatzeko epea zabaldu du, eta abenduaren 15era arte egongo da eskaerak egiteko aukera. Gizarte Larrialdietarako Gizarte bazterkeriari aurre egin eta bazterketa pertsonal, sozial eta laboral arriskua duten pertsonen egoera normalizatzeko baliabide ekonomikoak dira laguntza horiek. Udalak 200.000 euroko aurrekontu partida erreserbatu du 2023ko kontuetan. Eskaerak Elgoibarko Herritarren Arreta Zerbitzuan egin behar dira, eta ondoren, Gizarte Zerbitzuetako langileek kasu bakoitzaren azterketa indibiduala egingo dute. 2022an 272 eskaera egin zituzten 149 eskatzailek eta gastu totala 179.522,27 eurokoa izan zen.

Baserri bideen asfaltatze plana lizitaziora atera du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko zazpi landa bidetan egin behar dituzte asfaltatze lanak, eta hasierako aurrekontua 109.289,79 eurokoa (+ BEZ) izango dela zehaztu dute Udaletik. Asfaltatze-lanez gain, zenbait zati konpondu ere egin beharko dira hormigoiarekin. Lan horiek guztiak lizitaziora aterako ditu Udalak eta enpresek martxoaren 27a arteko epea izango dute lehiaketara aurkezteko. Informazio guztia Elgoibarko Udalaren webgunean aurkituko duzue, kontratatzailearen profilean: www.elgoibar.eus.

Haurrentzako zuhaitz landaketa antolatu dute domekarako



Zuhaitz landaketa antolatu dute Elgoibarren Baso Biziak elkarteak, Atxutxiamaika aisialdi taldeak, Lurgai Fundazioak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak domekarako, Elgoibarko Udalaren babesarekin. Mintxetako aparkalekuan batuko dira 10:00etan, eta handik joango dira izendatutako lekura. Antolatzailleek oinetako eta arropa eroso eramateko aholkatu dute, bai eta ura hartzeko ere, eta zehaztu dute erremintak beraiek eramango dituztela. Era berean ohar bat ere zabaldu dute: 12 urtez azpikoak pertsona heldu batek lagunduta joan behar direla.

Izena emateko: <https://tinyurl.com/landaketa> helbidean sartu behar da. Bukaeran bildutako guztientzako hamaiketako ia izango dela ere aurreratu dute antolatzailleek.

Errezabal zahar-egoitzari buruzko batzarra egin dute agintariek eta herriko zenbait eragilek

Pilar ikastetxea egon zen orubean egin nahi duten Errezabal zahar-etxeaz berba egiteko batu ziren joan zen astean Maite Peña foru diputatua eta Ane Beitia alkatea, egoitzaren proiektuarekin zerikusia duten Gizarte Zerbitzuetako herriko eragileetako ordezkariekin: Jubilatuen Biltokiko ordezkariak, Nagusilan, Bizitzen Fundazioa, Elgoibar Lagunkoia, San Lazaro egoitza eta udal ordezkariak. Zentro "berritzailea" izango dela zabaldu zuen Maite Peñak prentsa ohar bidez eta Elgoibarko egungo eta etorkizuneko beharrei ez ezik, eskualde osokoei erantzuteko gai izango dela.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren hasieran onartu zuen Elgoibarren gizarte-zerbitzuetako ekipamendu bat eraikitzeko eta kudeatzeko lizitazioa. Ekipamendu horrek honako hauek behar zituela zehaztu zuten: adinekoentzako egoitza bat, eguneko zentro bat (40 plaza) eta aparkaleku bat (140-150 plaza). Obra gauzatzeko prest dauden enpresek proposamenak aurkezteko epea martxoaren 7an amaituko da. Gunea eraikitzeko



eta kudeatzeko lizitazioaren aurrekontua 21 milioi euro baino gehiagokoa da.

Aldez aurreko azterlanen arabera, egoitza berriak 10.500 metro koadroko azalera izango du, gutxi gorabehera, eta 12-18 pertsonako bizikidetz-unitate txikiz osatuta egongo da. Gela gehienak banakakoak izango dira, eta komunitateari irekita egongo da zentroa, inguratzen duten berdeguneekin, egonleku zabalekin, jantokiekin eta kafetegiarekin.

Herri barruko autobus edo tren bidaiak diruz lagunduko ditu Elgoibarko Udalak

Herri barruan geltoki batetik bestera egiten diren bidaietarako dirulaguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak. 2022an 40 herritarrek eskatu zuten dirulaguntza hau eta Udalak 1.361,47 euro banatu zituen guztira. Diruz lagunduko diren bidaiak MUGI txartel pertsonalizatuarekin ordaindutakoak izango dira, eta dirulaguntzaren zenbatekoa ezberdina izango da bidaia kopuruaren arabera: 1 eta 20 bidaia artean 0,26 euroko dirulaguntza, 21-50 bidaia artean 0,21 eurokoa, eta 50etik gora, 0,05 eurokoa. Dirulaguntza eskatzeko epea azaroaren 30era arte egongo da zabalik. Eskaerak elektronikoki aurkez daitezke Elgoibarko Udalaren web orriko herritarren atarian, eta salbuespen gisa, Herritarren Arretarako Zerbitzuan.

Onuradunak eskabide-inprimakian adierazitako kontu korrontean jasoko du dirua banku-transferentziaren bidez.

Mendaroko Udalak dirulaguntzak emango ditu etxebizitzak hobetzeko

Etxebizitzetako obretarako dirulaguntza lerroaren bigarren deialdiaren berri eman du Mendaroko Udalak. Irisgarritasun lanak, fatxaden berritzeak, eraikinen ikuskaritza teknikoak eskatutako lanak, efizientzia energetikorako hobekuntzak, mugikortasun mugatua edo desgaitasuna duten pertsonentzat eta 65 urtez gorakoentzat etxebizitzak egokitzeko obrak... lagunduko ditu diruz, beti ere baldintza batzuen barruan. Eskaerak egiteko epea zabalik dagoela jakinarazi dute eta online (mendaro.eus) nahiz aurrez aurre egin daitezkeela udaletxera joanda. Iaz, 10 eskaera jaso zituztela zehaztu dute eta bost onartu zituztela. Guztira, 13.000 euro banatu zituzten, eta diruz lagundu zituztenak batez ere fatxadak hobetzeko, igogailuak jartzeko, EITak jartzeko edota plaka fotovoltaiakoak instalatzeko obrak izan zirela zehaztu dute.



“Ez dut beste lanbiderik ezagutzen, baina azokako lana ez nuke ezergatik aldatuko”

NORDIN OUAFAY ELOUAFAY

Ostegunetako azokako saltzailea

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

Ostegunetako azokako saltzailea da Nordin Ouafa Elouafay (Lazkao, 1992). Aitarengandik hartu zuen negozioa, eta ez du beste lanbiderik ezagutu. Astelehenetik zapatara egiten du lan Gipuzkoako hainbat herritako azoketan, eta ez luke bere lanbidea aldatuko. Gustatu egiten zaio azoka, bezeroekin daukan harremana, adiskidetasuna eta konfiantza. Bezeroak ezagutzen ditu, eta haiek ere ezagutzen dute bera, are gehiago orain, ETB1-eko 'Piztu Telebista' saioan agertzen denetik. Urretxun bizi da emazte eta alabarekin, baina astean behin Arrasatera joaten da gurasoen etxera, arreba gaztearekin telebistarako saioa grabatzera. Familiak sekulako garrantzia dauka bere bizitzan, erlijioak adinakoa. Horiek dira bere bizitzako bi zutabe nagusiak.

Nola hasi zinen azokan saltzen?

Aitaren bitartez sartu nintzen negozio honetan. Aita 1983an etorri zen Marokotik bizitza hobea baten bila, eta zorionez, topatu zuen. Amarekin ezkondata zegoen ordurako, baina bakarrik etorri zen, nire ama eta bi arreba han lagata. Bilbon bizi izan zen hasieran eta beste asko bezala, kalean eta tabernetan produktuak saltzen hasi zen. Gero, Gipuzkoara etorri zen, Goierri aldera, eta Lazkaon kokatu zen. Azokarako postu bat erosteko aukera suertatu zitzaion, beste saltzaile bat jubilatuta egin zelako eta horrela hasi zen lan honetan. 1988an gure anaia jaio zen Marokon, eta urtebete geroago etorri ziren ama eta nebarrebak Lazkaora. Sei bat urtez bizi izan ziren han, eta ni 1992an jaio nintzen. Zumarragara lekualdatu ginen, eta gero, Azpeitira. Gaztaroa Azpeitian eman nuen, han egin nituen benetako lagunak eta nongoa naizen galdetzen didatenean, azpeitiarra naizela erantzuten dut. Ikasketak utzi nituenean, aitari laguntzen hasi nintzen azokan, eta orain dela bost urte, aita jubilatuta zenean, neuk hartu nuen negozioaren ardura.

Zer da azokako saltzaile izatea?

Nik beti pentsatu izan dut gustuko zerbaitetan lan egin behar dela. Egon zaitezke fabrika batean lanean, lan egitea beharrezkoa delako, baina benetan lanbidea atsegin gabe. Nire kasua ez da hori. Niri lan hau gustatu egiten zait, eta azokako saltsa bizi dut. Nire buruaren jabe naiz, inork ez dit agintzen, eta bezeroekin dudak harremana oso polita da. Batzuetan goian zaude, besteetan behean, baina hemen ere, negozio guztietan bezala, kudeaketan dago gakoa. Gustatuz gero, eta ondo kudeatuz gero, inon baino hobeto nago hemen. Neguan hotz pixkat pasatzen dugu, eta udan bero, baina gustura nago. Egia da ez daukadala soldata finkorik, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago irabazten dut, baina bizitzeko ematen dit. Inoiz ez dut beste lanbiderik ezagutu, baina ez nuke aldatuko. Bizi osoa azokan emango nuke.

Ostegunetan Elgoibarko azokara etortzen zara. Non gehiago saltzen duzu?

Astelehenetik zapatuta egiten dut lan, hemen inguruko herrietan. Deba bailaran ibiltzen naiz batez ere, eta azpeitiarra izanda, nola ez, Azpeitiko azokara ere joaten naiz, asteartetan. Astelehenetan Aretxabaletara, asteazkenetan

"Urte asko daramatzat Elgoibarko azokan lanean. Bezeroek konfiantza handia dute nigan, eta nik ere bai beraiengan"

Eibarrera, ostegunetan Elgoibarrera, ostiraletan Arrasatera eta zapatuetan, Bergaran. Urte asko daramatzat lan honetan, eta ezaguna naiz. Bezeroak ere ia astero berberak izaten dira, eta gure arteko harremana sendotzen doa. Herri bakoitzak bere publikoa dauka, desberdinak dira erosleak, eta hori igarri egiten dugu, baina guretzako denak dira garrantzitsuak, asko erosten dutenak nahiz gutxi erosten dutenak.

Elgoibarko azoka nolako da?

Elgoibarko azoka gustatzen zait; oso gustura etortzen naiz. Eibarkoarekin alderatuta, askoz herrikoagoa da, lokalagoa. Eibarko handiagoa da, eta ondorioz, konpetentzia gehiago daukagu. Bezeroak ere kanpotik etortzen dira asko, Ermutik batez ere, eta askoz nahasiagoa da dena. Nik gusturago egiten dut lan Elgoibarren. Hemendik gehienetan pozik joaten naiz etxera, eta Eibartik askotan ez naiz hain gustura bueltatzen. Badakit ezin dela azoka guztietan berdina saldu, bestela, ez nintzateke hemen egongo. Miamin biziko nintzateke, txalet handi batean!

Eta, elgoibartarrak nolakoak gara?

Urte asko daramatzat Elgoibarko azokan lanean. Bezeroek konfiantza handia daukate nigan, eta nik ere beraiengan. Hori ez da egun batean irabazten. Pertsona jatorra denari jatorrak inguratzen zaizkio.

Urte batzuetan Sigmara lekualdatu zuten ostegunetako azoka eta haserre sortu zen herrian. Bizi al zenuen garai hura?

Bizi izan nuen bai, baina etxean. Oraindik umea nintzen eta aitaren bidez bizi izan nuen egoera hura. Herriarrak haserre egon ziren bai, baina saltzaileen artean ere sortu ziren liskarrak, izan ere, azokan posturik ez zuten batzuk egoera hura aprobetxatu zuten lekua hartzeko. Nire aita eta beste batzuk protestan aritu ziren eta, aldez, saltzaile berri batzuk postua jartzen hasi ziren. Horrelako azoketan garrantzitsua da saltzaile

guztiak norabide berean egotea, bestela, denok galtzen dugu. Nire aurreko saltzailea konpetentzia da niretzat, bai, baina aldi berean, nire lankidea ere bada. Ostegunero elkar ikusten dugu, ezagutzen gara, eta batuta dagoen taldea beti da askoz indartsuagoa. Konpondu zen egoera, eta itzuli zen azoka herrira, eskerrak! Izan ere, nire kasuan behintzat, bezeroak adin batetik aurrerako emakumezkoak dira, eta haientzat ez da berdina Plaza Txikira etortzea edo Sigmaraino joatea. Azoka ahal den gune zentrikoenean kokatu behar da, herri guztietan. Eibarren Txaltxazelain gaude, nahiko marginatuta, eta askotan eskatu dugun arren herrigunera lekualdatzea, ezin dela erantzuten digute. Ez gara protestan hasi, eta berdin-berdin joaten gara, ez daukagulako beste lanik, eta daukaguna indarrez hartu behar dugulako.

Azpeitiarra zarela diozu, euskalduna zara, eta marokoarrez hizketan ere entzun zaitugu. Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu?

Ondo, hiru: euskara, gaztelania eta marokoarra. Askotan nahastu egiten dira arabiarra eta marokoarra, baina desberdinak dira. Nik etxean ikasitako marokoarra hitz egiten dut, eta arabiera ulertzen dut, baina azkar hitz egiten badidate, zailtasunak izaten ditut. Gurasoekin marokoarrez egiten dugu, dariya esaten diogun hizkuntzan. Ni umea nintzenean familia marokoar gutxi zeuden Azpeitian, baina gaur egun asko gara eta gero eta ohikoagoa da marokoar jatorriko gazteak euskaraz hitz egiten entzutea. Bezero marokoarrak ere etortzen zaizkit, haiekin marokoarrez egiten dut, eta askotan deskontuak eskatzen dizkidate marokoarrak izateagatik. Amak esan izan dit hizkuntzak ikastea oso garrantzitsua dela; zenbat eta gehiago jakin, hobe.

Azokan badago tratua egiteko ohiturarik?

Bai, sekulakoa. Niri ez zait gustatzen, eta askotan gaizki hartzen dut. Prezio justua eskatzen dut, arropak balio duena. Askok uste dute merke erosten dugula generoa eta gero garesti saldu, baina justu kontrakoa da egoera. Nik arropa garesti erosten dut, eta garesti saldu, baina are garestiago saldu beharko nuke. Ez dut garestiago saltzen bezeroak gustura edukitzeko, baina hala ere, badaude tratuan ibiltzen direnak. Niri 10 euroko deskontua eskatzea izugarria iruditzen



"Amak esan izan dit hizkuntzak ikastea oso garrantzitsua dela; zenbat eta gehiago jakin, hobe"

zait! Gure etxean 10 euroekin bazkaldu eta ia afaldu ere egiten dugu. Margina gutxi daukagu, eta errespetua eskatzen diet bezeroei. Dendetan ez dute horrela jokatzeko, eta jokabide bera eskatzen diet guretzako ere. Nire postua denda bat balitz bezala prestatzen dut, eta uste dut bezeroak baloratu egin behar duela gure lana.

Nolakoa da zuretzat azoka egun bat?

Urretxun furgoneta kargatu eta Elgoibarrera etortzen gara. Iritsi eta lehenengo lana Tantikan kafea hartzea izaten da. Gille eta Leirerekin harreman oso ona daukagu eta han egoten gara beraiekin. Kafearen ostean postua prestatzen hasten gara, eta gero, saltzen hasten gara. Lehenengo bezeroa berezia izaten da, oso gogotsu hartzen dut. Eguerdia arte egoten gara, gero dena batu eta etxera. Arratsaldea libre edukitzen

dut, eta hori ere abantaila handia da. Gustura lan egin, dirua eraman etxera eta arratsaldea libre! Ni, esaterako, areto futboleko ibiltzen naiz. Hiru egunez entrenatu, eta asteburuan, partida.

Azokan ezaguna zara, baina orain are ezagunagoa. Nola iritsi zitzaizun 'Piztu Telebista' saioan parte hartzeko aukera?

Telebistan irteteko lehenengo aukera *Ur Handitan* saioan izan nuen. Erlijioari buruzko saio bat egin zuten eta euskaldun musulman moduan deitu zidaten. Gure kultura zabaldu eta jendeak Islamari buruz dituen aurreiritziak aldatu nahi genituen. Programa oso ona irten zen, eta gerora berriz deitu zidaten, Covid-19ak azokan nola eragin zuen lantzeko. Ondoren etorri zen *Piztu Telebistan* parte hartzeko deia. Galdetu zidaten ea baneukan euskarazko harremanik etxekoren batekin, eta baietz esan nien, arreba gaztearekin euskaraz egiten nuela. Biok hemen jaiotakoak gara, eta harreman oso ona daukagu. Jolas moduan hasi ginen, baina oso lan serioa da. Jende askok esaten dit azokan telebistan ikusten nauela, eta horrek bezeroekin harremana apur bat aldatu du.

Nola ikusten duzu zure burua telebistan?

Ni oso lotsatia naiz, batez ere neskekin. Orain ezkontuta nago eta 4 urteko alaba daukat, baina gaztetan neska bati muxu emateko... a zelako lanak! Pentsa, iaz neska kuadrilla batek beraiekin argazkia ateratzeko eskatu zidan hemen ostegun batean. Tantakako terraza jendez beteta eta ni

han neskekin argazkia ateratzen! A zer lotsa! Baina bueno, egia esanda pozik gabiltza. Garen modukoak irteten gara; ez dugu antzetzten ezer, natural-natural egiten dugu. Oso harreman ona daukat arrebarekin, eta asko maite dut. Berak, gainera, badaki asko maite dudala, eta nik ere badakit bere erreferentzia ni izan naizela.

Erljioari buruzko programa batean irten zinen, Islamari buruz hizketan. Zein pisu dauka erlijioak zure bizitzan?

Erljioa dagoen gauzarik garrantzitsuena da niretzat, familia bezain garrantzitsua. Erljioak erakusten digu familia errespetatzen. Gaztetan ez nuen sinisten eta egiten nituen nire erlijioak baimentzen ez zituenak, baina 23 urterekin aldatu egin nintzen. Parrandak laga nituen, eta nire erlijioak baimentzen ez dituenak ez ditut egiten. Jarraitzen dut lagunekin egoten, baina bakoitza bere eran. Lagun oso onak ditut eta naizen moduan errespetatzen naute. Ezkondu nintzenean Marokora etorri ziren nire ezkontzara. Benetako lagunak horiek dira, errespetatzen zaituztenak zaren bezalakoa izanda.

"23 urterekin parrandak utzi nituen eta gaur egun ez ditut egiten nire erlijioak baimentzen ez dituen gauzak"



FEMINISMOAREN ALDEKO ALDARRIA, PLAZARA

✍ Ainhoa Andonegi

📍 Asier Orbea / Ainara Argoitia / Ainhoa Andonegi

Morez jantzi zen Euskal Herria eguaztenean, eta halaxe jantzi ziren Elgoibar eta Mendara ere. Zaintza eta pertsonak erdigunera ekarri eta feminismoaren aldeko aldarriak eraman zituzten plazara martxoaren 8an, baina behin eta berriz errepikatzen zuten

Martxoaren 8a egunero dela. Ekintzaz beteriko eguna izan zen eguaztena, eguerditik iluntzeraino. Elkarretaratzeak, manifestazioak, tailerrak, dantzak, erakusketak... Borroka feminista Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: barren.eus





Udaberriko oporraldirako izena emateko epea martxoaren 17an amaituko da

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak aisialdi taldeak eta Udal Ludotekak elkarlanean antolatu dute udaberriko oporraldia, eta martxoaren 17ra arteko epea jarri dute izena emateko. LH1etik LH6ra arteko umeentzako eskaintza bateratua prestatu dute batetik, eta Atxutxiamaiak, bestalde, HH2-HH5 tarteko umeentzako txokoak antolatu ditu. Txokoak goizez

izango dira, 09:00etatik 13:00etara. Gainerako eskaintzan egun osoko irteerak, goiz-pasak edota egonaldiak eskaini dituzte. Bi txanda egongo dira aukeran adin tarte guztietan, apirilaren 3tik 5era lehenengoa eta apirilaren 11tik 14ra bigarrenkoa. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, www.elgoibarkoizarra.eus atarian kontsultatu daiteke edo 943 741 626 telefonora deitu.

'Familia sarekada' antzerkia gaur, Herriko Antzokian



Vaiven Produkzioak ekoiztetxearen eskutik iritsiko da gaur *Familia sarekada* antzezlanaz Herriko Antzokira. Informatika Delituen Unitateko komisarioa Villaorduñatarren etxean sartuko da, eta familiako lau kideak atxilotuko ditu. Hasiara batean, denak egozten zaizkien delituen errudun direla ematen du, baina ikusleak pixkanaka jakingo du akusazioen oinarri diren artxiboak ez direla diruditenak. Inspektoreak, azkenean, familia errugabetuko du etxeko porno-delituengatik, baina familia hautsi bat utziko du. 19:00etan hasiko da antzezlanaz.

Umeentzako liburuak aukeratzeko tailerra antolatu du Udal Liburutegiak

Adituen arabera ipuinak ezinbesteko tresna dira, besteak beste fantasia eta irudimena garatzeko, batez ere, bizitzako lehen urteetan. Ipuinak aukera eskaintzen diete gure seme-alabei bizitzan garrantzitsuak diren bizipenak modu seguruan esperimintatzeko, bizitzarako garrantzitsuak diren erremintak eskuratzeko. Gurasoekiko lotura afektiboa sendotzen dute, eta aukera bat dira guraso moduan gure seme-

alabekin bestelako lanketa batzuk egiteko. Liburu horiek aukeratzen ikasteko tailerra emango du Gotzon Garate Udal Liburutegiak, Dorleta Kortazar adituarekin. HHko eta LH1eko gurasoentzako tailerra izango da, eta bi saiotan egingo dute, martxoaren 16an eta 23an, 18:00etatik 20:00etara. Izena ematea beharrezkoa da: 943 743 525 telefonoan, 688 710 138 whatsapppean edoliburutegia@elgoibar.eus helbidean.

Domekan jokatuko dute Elgoibarko Aurreku Txapelketa

Gipuzkoako hainbat herritako dantzariak bilduko dira domekan Herriko Antzokian, Elgoibarko Aurreku Txapelketa jokatzeko. 7 eta 15 urte bitarteko dantzariak hartuko dute parte, eta horien arten, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleek ere hartuko dute parte. Zazpi ordezkari izango ditugu guztira: Haizea Luluaga, Unax Ansola, Sare Meabebasterretxea, Irene Toledano, Duna Santos, Elaia Etxaniz, eta Uxue Cabrera.



Bulegok, Gozategik eta Puro Relajok joko dute Mendaroko santanetan



Uztailaren 22tik 26ra ospatuko dituzte Mendaron santanak, eta Udaletik aurreratu dute Puro Relajok (uztailaren 22an), Gozategi k(uztailaren 23an) eta Bulegok (uztailaren 24an) joko dutela. Udalak prentsa ohar bidez zabaldu du iaz santanak antolatzeko egin zituzten bileretan aipatu ziren taldeak direla, baina data kontuengatik iaz ekarri ezin izan zituztenak. Aurten, baina, kontratazioa aurreratu dutela zehaztu dute. Era berean, jakinarazi dute apirilaren bigarren hamabostaldirako lotuko dutela jai batzordearen hurrengo bilera.

Udalaren jokaera salatu dute EHBildutik

Udalak jaietarako programatutako lau ekitaldik genero arrakala handitzeko besterik ez dutela balio salatu dute EHBildutik eta jaietako aurrekontuaren %60tik gora lau ekitaldi horietan gastatzea egotzi diote, jai batzordea baztertuta. Santanetan joko duten hiru taldeen argazkia egin du publiko Udalak eta hari erreparatuta eta Udalak iragarri ez duen pilota partida bati aipamena eginez salatu dute "Berdintasun Plan arranditsuak onartu eta lau haizetara zabaldu arren", praktikan, parekidetasunak "hutsaren

hurrengo" garrantzia duela Udalarentzat. Hiru kontzertu eta bi pilota partidetan 22 gizon eta emakume bakarra arituko direla aurreratu dute eta azpimarratu dute Berdintasun-plana ezin dela izan data konkretu batzuetarako egitarauak betetzeko, hori "postureo politikoa" delako.

Bildutik jakinarazi dute Udalak 14.000 euro ordainduko dituela bi pilota partidarengatik eta 8.500 euro Gozategi taldea ekartzeko. Oharrean aipatu dute santanetarako iragarri duten beste bi taldeak kontratatzeak zer aurrekontu duen ez dietela zehaztu, baina estimazio bat egin dutela Gozategiren kostua aintzat hartuta eta hiru kontzertuek eta bi pilota partidek 40.000 euroko kostua gainditzen dutela. Iaz, 70.000 euro bueltako aurrekontua izan zuten jaiak eta hori aintzat hartuta aipatu dute jaietan gastatuko diren zazpi eurotik lau baino gehiago ekitaldi horietara bideratuko direla. Era berean, salatu dute bere kasa egin dituela kontratazioak Udal Gobernuak, jai batzordea "baztertuta": "Lehenbizi diru gehiena norbere propagandarako erabiltzeko gastatu, eta gero, jendeari parte-hartzeko eskatu, txikikeriak erabaki, eta norbere burua zuritzeko

Laburbira zikloa emango dute eguaztenean Herriko Antzokian

Udalak eta Ongarri zineklubak antolatuta, euskarazko zazpi film labur emango dituzte eguaztenean Herriko Antzokian, Laburbira zikloaren barruan: *Olatuen isiltasuna*; *Muskil*; *Koadro goriari heldu*; *Irrits*; *Asko falta da?*; *Erlojupekoa* eta *Hitzak*. Euskaltzaleon Topaguneak sortu zuen Laburbira, euskarazko sortzaileen

lana ezagutzera emateko, eta herritarrei gurean eta euskaraz sortutako lanak ikusteko aukera eskaintzeko. Aurtengo aukeraketa lurraldetasuna, genero berdintasuna eta filmeen maila kontuan hartuz egin dute, "ikusleei ahalik eta emanaldi aberasgarriena" eskaintzeko. 21:00etan hasiko da saioa, eta doan izango da.



Mendaroko Txirrindulari Elkartekoak ere batu ziren domekan Eibarren egin zuten protestara.

ARNASA HARTU DUTE OINARRIZKO TXIRRINDULARITZAN, BEHIN-BEHINEAN

✍️ Ainara Argoitia

Lasterketetan lotura lanak egiten dituen motorzaleen taldeak egindako eskakizunak bete arte, zenbait lasterketa bertan behera lagata zituzten elkarteek asteon, tartean bihar Mendaron jokatzekoa zuten kadeteen lasterketa, baina, atzo, edizio hau ixteko momentuan zabaldu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak esku hartu zuela auzian, eta behin-behinean behintzat, denboraldia hasteko moduan izango dela Gipuzkoan. Lerro hauek idazteko unean, nahasmena handia zen elkarteetan, baina Goizane Alvarez Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol zuzendariak **BARRENI** baieztatu zion Aldundiak diru-poltsa bat jarri zuela

Eusko Jaurlaritzak auzi hau bideratu bitartean motorzaleei lasterketan gerta dakizkiekenak estaltzeko. Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoko Arritxu Iribarrek, bestalde, aurreratu zigun bertan behera utzia zuten Asteasuko Aiztondo Klasika -Espainiako Koparako proba puntuagarria eta egutegiaren arabera domekan jokatzekoa zena- antolatzeko ahaleginetan ari zirela antolatzaileak, erlojuaren kontra. Herrizaingo Sailak agindua zizkien ertzainak eta motorzale boluntarioak ere lotuak zituzten, baina hori lotzea baino gehiago da lasterketa bat antolatzea, are gehiago Espainiako Kopako proba denean eta ez zirudien erraza.

Ez zen giro Gipuzkoako oinarrizko txirrindularitzan, baina badirudi momentuan argia egin dela. Atzo goizean, edizio hau ixteko orduan, zabaldu zen zurrumurrua. Berehala bihurtu zuten lerroburu agerkari ezberdinek eta hasi zen dei-festa bazterretan:

Gipuzkoako Foru Aldundiak diru poltsa bat jarria zuela zioten albisteez, Eusko Jaurlaritzak behinbetiko konponbide bat ziurtatu arte, motorzaleen eskakizunak beteko direla ziurtatzeko. Aldundiko Kirol zuzendariak jakinarazi zuen akordioa eguazten gauean sinatu zutela Gipuzkoako

Txirrindulari Elkargoarekin, eta akordio horri forma ematen ari zirela lerro hauek idazteko unean, baina Alvarezek BARRENI baieztatu zion agiriak astelehenean sinatuta ere, izaera atzeraeraginezkoa izango zuela, eta biharko eta etziko lasterketarako ere balioko zuela. Zailena eginda zirudien beraz, baina ez zen ziurra Gipuzkoan asteburu honetan kadeteen, juniorren eta afizionatuen lasterketarik izango zirenik, antolatzaileek hori baino gauza gehiago ere lotu behar izaten dituztelako eta elkarteetan lanean ari direnak boluntarioak direlako.

Ezer ez da erraza

Arnasa hartu dute txirrindulariek, baina arnasa luzea behar du txirrindularitzak, eta hori da falta dena. Gipuzkoako Txirrindulari Elkargoak eta klubek eurek aspaldi zuten ohartarazia: karrerak antolatzeko zailtasunak gero eta handiagoak dira, eta mundu honi eusten dioten elkarteetako boluntarioak nekatzen hasiak dira. Gero eta debeku gehiago daude, eta gero eta paper eta aseguru premia handiagoa. Kontua ez da berria beraz, baina lasterketetan bidegurutzeak zaindu eta lotura lanak egiten dituzten motorzale boluntarioen aseguruak ordaintzeko dagoen ezinak errematea ekarri zuen joan zen astean. Motoristek planto egin zuten, txirrindularitza elkarteek lasterketarako egiten dieten aseguruak ez dituelako haien lan-erremintak babesten eta haiek gabe Herrizaingo Sailak ez duelako lasterketarik antolatzeko baimenik ematen. Baina bada beste kontu bat,

Biharko programatuta zeuden Mendaroko eta Mutrikuko lasterketak ez dira jokatu, eta ikusteko dago domekan Asteasuko Aiztondo Klasika entzutetsua jokatu den azkenean

aurretiagokoa beharbada. Herrizaingo Saitetik bertatik gero eta ertzain gutxiago bidaltzen dituzte lasterketara segurtasuna bermatzera, eta ondorioz, motozaleen premia gero eta handiagoa da. Segurtasuna oinarri-oinarrizkoa da txirrindularitzan, eta gaur-gaurkoz, txirrindularitza elkartei ezinezkoa zaie bidegurutze, biribilgune, isleta eta gainerako oztopo guztiak itxi edo seinalezatzeko beste boluntario lortzea, gero eta zailagoa delako hutsaren truke bere denbora emango duen jendea inguratzea.

Ondorioz, joan zen asteburuan jokatzekoak ziren bi lasterketak, kadeteen Beasaingo Usurbe proba eta junior mailako Eibarko Udaberri Saria, bertan behera laga behar izan zituzten antolatzaileek, derrigorrean. Baina egutegi osoak zirudien kinkan momentuan. Hasteko, domeka honetan jokatzekoak ziren afizionatuen Asteasuko Aiztondo Klasika (Espainiako Koparako proba puntuagarria) eta bihar jokatzekoak ziren kadeteen Mendaroko lasterketa eta juniorren Mutrikukoa ere ez ziren jokatzekoak atzo goizera



Gipuzkoako Txirrindulari Elkargoko, Eibarko Txirrindulari Elkarteko eta Eibarko Udaleko ordezkariak igandean Eibarren egin zuten protesta ekitaldian, dozenaka zalez inguratuta.

arte. Mendaroko Txirrindulari Elkartek joan zen asteen aurreratu zuen albistea eta bat egin zuen iragan domekarako Eibarko Txirrindulari Elkartek deitu zuen protesta ekitaldiarekin. Txirrindularitza lasterketetako segurtasuna bermatzeko behar diren baliabideak jar ditzatela eskatu zieten agintariei domekan Eibarren. Txirrindularitza kate bat dela azpimarratu zuten elkarretaratzean, hasi umetatik eta profesioaletarainoko katea, baina


katea oinarrian hautsita baldin badago, alferrik dela pedalei eragitea. "Tourra ginda gorri eta distiratsua da, baina beheko tarta galtzear gaude bide honetatik jarraituz gero, eta ginda bat, oso gorri eta distiratsua izanda ere, ez da ezer, azpiko pastelik gabe", adierazi zuen Santi Osoro Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteko lehendakariak elkarretaratzean. Alegia, oinarria zaindu gabe, ez dagoela eliteko txirrindularitzarik.

Afizionatuetan lehiatzen dira Imanol Alvarez (Elgoibar, 1999) eta Beñat Fernandez (Mendaro, 2003) eta txirrindulari profesionala da Peio Goikoetxea (Ermua, 1992).



IMANOL ALVAREZ
Eiser Hirumet

"Zilegi iruditzen zait motorzaleek eskatzen dutena eta babesten ditut, haiek gabe ezin delako segurtasuna bermatu karreretan, baina ez dut ukatuko minduta nagoela, negu osoa izan dutelako aldeek arazo hau konpontzeko, egoera honetara iritsi aurretik. Txirrindulari elkarteei dena ari zaie konplikatzen. Dena ari da profesionalizatzen, eta berez ez da txarra, baliabideak egonez gero, baina hemen hori falta da. Negu osoa eman dugu entrenatzen eta gozatzen hasi behar genuenean, danba! Harrobia zaindu beharra dago, harrobiko lanik gabe ez dagoelako eliteko txirrindularitzarik. Tourra bera Euskal Herrira ekarriko dute, eta ona da berez, baina harrobia zaintzen baldin bada".



BEÑAT FERNANDEZ
Eibar Txirrindulari Taldea

"Oso triste da gertatzen ari dena, baina badijadi orain behin-behinean konpondu dela behintzat. Berri ona da, oinarrizko mailetan karrerak egotea ezinbestekoa delako, goragora salto egiteko. Geldialdi hauek, ez dira batere onak guretzat, entrenatzeko motibazioa ere galtzen dugulako. Antolatzaileak ere etsita ikusten ditut, beren lana izugarri ari delako konplikatzen, eta guk behar-beharrezko ditugu, guretzako aukerak sortzen dutenak haiek direlako. Tourra Euskal Herrira datorren urtean oinarrizko txirrindularitzan kontu hauekin ibiltzea penagarria da. Nik nahiago dut dirua kadeeten, jubenen eta afizionatuen lasterketetako segurtasuna bermatzeko erabiltzea Tourra ekartzeko baino".



PEIO GOIKOETXEA
Euskaltel-Euskadi

Eibarko Txirrindulari Elkartek domekarako deitu zuen elkarretaratzean parte hartu zuen txirrindulari profesional bakarra izan zen Peio Goikoetxea Goiogana Euskaltel-Euskadiko txirrindularia. "Igandeko elkarretaratzearen berri izan nuenean ez nuen zalantzarik egin. Sentitzen nuen egon behar nuela, ni neu ere pasatu naizelako azpiko maila guztietatik eta zorretan sentitzen naizelako txirrindularitzan borondatez lanean ari diren guztiekin, haiengatik izan ez balitz ni ez nengokeelako gaur nagoen lekuan. Boluntarioak dira, dena zaildu zaie eta garbi daukat orain daudenak aspertzeko bazez, nekez topatuko dugula erreleborik antolakuntza lan horietarako".

ALEX ARANBERRI

Elgoibarko Lagun Taldeako eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteko kidea

Badirudi behin-behinean behintzat konponbide bat badagoela azken orduan. Gustura?. Jokatu da azkenean bihar Mendaron kadeteen lasterketa?

Berri ona da, bai. Gauza garbirik ez dakit oraindik, prentsan irakurri dudana baino ez, baina berri ona da. Mendarokoa bertan behera laga beharko dugu derrigor. Guk ez daukagu orain bi egunetan dena lotzeko modurik, boluntarioak gara elkartean eta ezinezkoa zaigu.

Zer balorazio orokor egiten duzu egoeraz?

Gure modukoei erabat konplikatu zaigula dena. Urte askoan boluntarioekin egin dugu dena. Pintxo eta ardo bana ordaintzen genien laguntzera biltzen zitzaizkigunei eta denok pozik! Baina 2018an, istripu larria gertatu zen Valentziaga Oroitzarrean. Isleta bat zaintzen ari zen motorzale bat aurretik eraman zuten ziklistek eta orduan konturatu ginen gauzak beste modu batean egin behar genituela eta hasi ginen motorzale boluntarioei eguneko aseguruia egiten. Sekula inork ez zuen pentsatu, baina, haien lan-erremintetan, harik eta iaz beste motorzale baten motoak kalte handiak izan zituen arte. Beharbada ez dugu inoiz horretan pentsatu gu geu eta gure etxeko eta gertuko lagunak ere modu berean ibili garelako eta gabiltzalako oraindik ere karreretan.

Zein da egun txirrindularitza elkartean osasuna?

Bai Elgoibarko Lagun Taldean, bai eta Mendaroko Txirrindulari Elkartean ere boluntarioak gara denok. Begira, karrera bat baino bi-hiru egun aurretik ertzainekin batzen gara gu, ibilbidea erreparatzeko eta segurtasuna bermatzeko ditugun baliabideen berri emateko. Horiek denak erreparatu ostean, agiri bat sinarazten digute antolatzaileoi eta askotan esan izan dugu zer sinatzen dugun jakingo bagenu, beharbada, karrerarik ere ez genukeela antolatuko. Lan boluntarioan gabiltzanak gero eta gutxiago gara eta gainera gero eta burukomin handiagoa zaigu karrera bat antolatzea, debekuak eta bete beharreko paper-kontuak eta bestelakoak ugaritu egin direlako. Eta jakina, guk ez dugu ezer



Oñatiko Aloña Mendi Txirrindularitza Eskolakoak, domekan, Eibarren

"Ezin dugu teilatutik hasi etxea eraikitzen"

kobratzen, baina kontrara, zerbait gertatzen bada, erantzukizun guztia gurea da. Eta horrek etsipena dakar, nekea. Egin kontu: lasterketa bat egiteko, aseguruia, epaileak, ambulanzia-zerbitzua, medikua -baldin eta lagunak ez baldin badaukazu-, motorzaleak eta sariak ordaindu behar ditugu eta kobratzen ez dugun bakarrak antolatzaileak, boluntario-lanera batzen zaizkigun senide eta gertuko lagunak eta ziklistak dira. Izan ere, kadete eta juniorretan, lehen hiru eurona ordaintzen zitzairen ziklistei dieta kontzeptuan, baina orain, hori ere ez.

Kadeteen lasterketa bat antolatzeak, adibidez, zer kostu izan dezake gutxi gorabehera?

Bidegurutzeak zaintzeko lortzen ditugun boluntarioen arabera da asko, gutxi lortuz gero moto gehiago behar direlako, baina esango nizuke, 2.100 euro inguruko gastua dela. Dena ari da profesionalizatzen eta orain elkarteok 2.000 euroan egiten duguna, laster enpresa pribatuek egingo dute, bi aldiz garestiago.

Frantziako Tourreko hiru etapa Euskal Herritik igaroko dira aurten. Azpiko katebegiak zaintzeko deia egin zuten domekan Eibarren. Zer diozu?

Oso ondo iruditzen zait Tourraren pareko ikuskizun bat Euskal Herrira ekartzea, baina

beti ere txirringularitza-proiektuaren oinarria sendoa bada. Orain momentuan txirringularitza oso ahul dago, bai lizentzia-kopuru aldetik, bai eta egitura aldetik ere. Ezin zaigu ahoa bete esanez munduko zale onenak ditugula; ezin dugu teilatutik hasi etxea eraikitzen. Gipuzkoan, urtero, sekulako dirutza bideratzen da herrietako kirol instalazioetan hobekuntza lanak egiteko. Guk, ordea, Donostiako belodromoa bakarrik daukagu eta bera kristo bat eginda, eta errepidean egiten diren konponketak ez dira

preseski gudan pentsatuta egiten.

Behin betiko onponbiderik ikusten al duzu epe motzera begira?

Bai. Ez dakit zein izango den bidea: aseguru-etxeen bidea urratzea, motorzale lanpostua sortzea edo Espainian egiten duten bezala, lasterketako segurtasuna oso-osoan Poliziak bermatzeko bidea egitea, baina zerbait asmatu behar da. Garbi dut, hori bai, hemen dena profesionalizatzerara doala eta lan boluntarioa amaitzera doala.

ALEX SEGADE Lasterketetan ibili ohi den motorzalea



Elkarrizketa hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Txirringularitza Elkargoaren akordioaren berri jakin aurretik egindakoa da, eta gerora moztutakoa.

Zer da zuek eskatzen jardun zaretena?

Motoak eta ekipamendua ere aseguratzea. Gu geu babestuta geunden orain arte ere lasterketan minen bat hartuz gero, baina erreminta ez, eta hura gabe ez gara ezer. Iruditzen zaigu lan-errekonozimendua izan behar duela guk egiten dugunak, lan-errekonozimendu hori gabe zaila delako aseguru etxeren bat topatzea. Ulertu dezaket gure plantoak mina eman izana jende bati, baina guk ere gutxieneko batzuk eskatu behar ditugu.

Zein baldintzatan jarduten zarete? Zeinek eskatuta

Txirringularitza elkarteetatik deitzen digute. Trafiko kontuetan Ertzaintzak du azken hitza,

"Iruditzen zait lan-errekonozimendua izan behar duela gure egitekoak"

eta antolatzaileak haiekin bildu behar izaten dira, ibilbidea adostu eta segurtasuna bermatzeko behar dituzten baliabideak lotzeko. Antolatzaileek dituzten boluntarioen eta esleitzen dizkieten ertzainen lana osatzeko deitzen digute guri, eta Ikolan ETT enpresaren bidez kontratatzen gaituzte. Lasterketa tipoaren arabera ezberdin kobratzen dugu, baina 23 urtez azpikoen lasterketa bategatik 50-60 bat euro ordaintzen dizkigute. Inork ez dezala pentsa horrekin aberasten ari garenik, motoaren gastuak estaltzeko delako doi-doi.

Indarberrituta itzuli da Pilota Eguna lau urteko geldialdia eta gero



Covid-19aren izurriak eragindako geldialdiaren ostean, lehen aldiko ilusioz gozatu zuten eskola-umeek Pilota Egunean. Izan ere, Elgoibar Ikastolako ikasle askok aurten ezagutu dute kirol ekitaldi hau, azkeneko 2019an egin zutelako. Eskola-umeak galtza eta kamiseta zuria jantzita eta gerrikoarekin aritu ziren pilotan. Egun honetan jendartera ateratzen du pilota Elgoibar Ikastolak, Plaza Handiko frontoira, baina Elgoibar Ikastolako frontoian egitea erabaki zuten. Harmailak gurasoz eta pilotazalez beteta zirela aritu ziren pilotan finaletara ailegatu ziren bikoteak. Guztira hamalau partida jokatu zituzten, 12 tantora. Ikastolakoek Lagunak Pilota Eskolakoen laguntza izan zuten antolakuntzan, eta epaileez gainera, mikrofonoa eskuan hartuta partidetak gorabeherak komentatzen aritu ziren esatariak ere jarri zituzten. Sari banaketa ekitaldian, Ados Pilota emakume pilotari profesionalen lehen klubeko kide diren Eneritz Arrietaren eta Naroa Agirreren eskutik jaso zuten garaikurra pilotari gaztetxoek, eta baita kirol zinegotzi Iñigo Loiolaren eta Ikastolako arduradunen eskutik ere. Guztiek jaso zuten saria. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus



Elgoibarko eta Mendaroko 22 emakumek hartu dute parte Lilatoian

Kamiseta morea jantzita ia 5.000 emakumek bete zituzten, domekan, Donostiako kaleak, Lilatoia lasterketaren 33. ekitaldian. Pandemiaren aurreko parte-hartzaile kopuruetara hurbildu da aurtengo edizioa: 4.991 emakumek bukatu dute aurtengoa eta 5.576k amaitu zuten 2020koa. Parte-hartzaileen artean izan dira Elgoibartik joandako hamazazpi emakume eta bost mendaroar. Urte batzuetan 73koa ere izatera iritsi da Elgoibartik eta Mendarotik joandako ordezkari (2015ean, esaterako). Lilak, Elgoibarko Emakumeen Etxeak, autobusa ere ipini zuen Elgoibartik Donostiara joateko, doan, baina lagun oso gutxik eman zuten izena eta bertan behera laga zuten ekimena. Lilatoia “kirol proba bat baino askoz gehiago” dela adierazi zuten antolatzaileek proba jokatu aurretik, “gizarte berdinzaleago eta feministago bat lortzeko aldarrikapenerako espazio bat” ere badelako. Lasterketa ere bada, ordea, eta hor Nerea Egia donostiarra izan zen bost kilometroko



ibilbidea osatzen azkarrena 17 minutu eta 43 segundoko denbora eginda, Maria Navascues eta Itziar Ibarbiaren aurretik. Elgoibartarren eta mendaroarren emaitzak **barren.eus** web orrian

Pala txapelketak antolatu ahal izateko bilera egingo dute domekan

Lagunak Pilota Eskolak emakumeen eta gizonen pala txapelketak antolatu nahi ditu berriro ere, baina boluntarioak behar ditu Kalegoen plazan jokatzeko diren txapelketak egin ahal izateko. Laguntzeko prest dauden guztiei domekan, martxoaren 12an, egingo duten bilerara agertzeko eskatu diete Lagunak taldekoek. Ibai Ondo jatetxean egingo dute batzarra, 11:00etatik aurrera. Batetik, Elgoibarko Emakumezkoen Binakako Pala Txapelketaren hamargarren ekitaldia antolatu nahi dute. Iaz jokatu zuten aurreko edizioa eta Maria Badiola eta Yolanda Mateos gailendu ziren. Bestetik, Elgoibarko



Gizonezkoen Binakako 5. Pala Txapelketa antolatu nahi dute, 2019az geroztik jokatzeko dagoena. Markel Portu eta Gorka Lizarralde mendaroarrak izan ziren irabazleak urte hartan.

Eskolarteko Xake Txapelketa, domekan

Zubi-Ondo Xake Taldeak antolatuta, Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu dute domekan, martxoaren 12an, taldeak Mugertza kalean (pista beltza) duen egoitzan.

Txapelketa 16:30ean hasiko da, eta izena eman nahi dutenek orduerdi lehenago, 16:00etan, agertu beharko dute parte hartu nahi dutela esateko.

Elgoibarko Lagun Taldeako txirrindulari gaztetxoek bakarrik lehiatu ahal izan dira asteburuan, Arrasaten

Gipuzkoako oinarriko txirrindularitzako egutegiaren barruan benjaminen, alebinen eta infantilen lasterketak baino ez dira jokatu asteburuan, errepideko lasterketetan lotura lanak egiten dituzten motorzaleek egindako eskakizunak bete arte, geldi daudelako gainerako mailetakoak. Arrasaten lehiatu ziren gaztetxoek. Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteak antolatu zuen jardunaldia eta hiru lasterketa jokatu zituzten, Arrasateko Markuleteko industrialdean: benjaminena, alebinena eta infantilena. Zortzi herritako txirrindulari eskoletako neska-mutilak lehiatu ziren: Arrasate, Elgoibar, Azkoitia, Azpeitia, Legazpi, Zumarraga, Oñati eta Bergarakoak. Elgoibarko Lagun Taldetik hamahiru gaztetxok parte hartu zuten: bost infantiletan, bi alebinetan eta sei benjaminetan, eta alebinetan, Luken Zulaika mendarorak irabazi zuen lasterketa, mutiletan.



Podiuma Jakes Zubizarreta (Peña Elorza) eta Oxel Kortabariak (Dorletako Ama) osatu zuten.

Julen Urruzolak Hungariako txapelketa jokatu du Espainiako selekzioarekin



Ekainaren 20tik uztailaren 2ra bitartean Alemaniak (Berlin, Magdeburgo eta Hannover) eta Greziak (Atenas) elkarrekin antolatu duten junior mailako Munduko Txapelketarako prestatzen ari da Espainiako eskubaloi selekzioa -Hispanos Junior-, eta prestaketa horren barruan jokatu dute asteburuan Hungariako nazioarteko txapelketa. Rodrigo Reñones hautatzaileak deialdian sartu du oraingoan ere Bidasoa taldeko jokalaria Julen Urruzola elgoibartarra. Espainiak

Hungariaren aurka jokatu du lehen finalerdia, gaur. Beste finalerdian Eslovenia eta Portugalak neurtuko dituzte indarrak eta zapatuan jokatu dituzte 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida eta finala. Era berean, June Loidik Espainiako senior mailako emakumezkoen eskubaloi selekzioarekin, -Guerreras taldea- jokatu berri du Portugalen Batalha izeneko nazioarteko txapelketa. Cabo Verderi eta Italiari irabazi ostean, finalean 20-19 galdu zuen Espainiak Portugalen aurka.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Ospitalean gauak pasatzeko prest. Lan eskarmentua daukat. **632 209 019**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Ospitalean gauak pasatzeko prest. Esperientzia daukat. **722 408 667**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere bai. Esperientzia. **631 125 127**

LHko eta DBHko eskola partikularrak emango nituzke. **626 425 080**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Asteburuetan eta gauetz ere bai. Titulo soziosanitarioa daukat. **631 425 686**

Adinekoak zaintzeko prest nago, esperientzi handia. **631 482 891**

Garbiketa lanak egingo nituzke, goizez. Etxeak, lokalak, enpresak... Esperientzia. **612 444 129**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauetz ere bai, ospitalean zein etxean. Titulo soziosanitarioa daukat. **675 625 362**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **688 489 881**

Lanerako premia daukat. Edozein lan egiteko prest. **631 482 891**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Paperak legez dauzkat. **689 003 537**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Titulo soziosanitarioa daukat. **631 125 127**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. **685 724 861**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. **612 294 738**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. **641 739 472**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Sukaldari laguntzaile lanetarako ere bai. **647 533 201**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, orduka edota asteburuetan. Beharrezkoa den titulua daukat. **643 071 900**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gauetz edo asteburuetan. Esperientzia. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. **642 577 823**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulua ditut. **602 398 328**

Mutila eskaintzen da lanerako. Edozein lan egiteko prest nago. **624 127 087**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. **624 127 122**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez, orduka. **632 794 799**

ETXEBIZITZA


Gutxienez bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. **639 542 346**

Etxea hartuko nuke alokairuan. Gela bakarrarekin nahikoa da. **659 083 325**

IBILGAILUAK

Dethleffs autokarabana salgai. Sei leku bidaiarako zein lotarako, extra asko eta ondo zainduta. Kilometro gutxi, irailera arteko IAT-a eta arrisku orotarako aseguruia urria artekoa. **629 415 984**

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpleu Administrazioaren Lanbide-Statutua</p> <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Jakin nahiko nuke gai-ordenean jasotako gai baten inguruan zerbait adostu dezakegun bileran, galdere-erantzunen tartean.</p> <p>Arauk dio ezin dela gai-ordenean jaso ez den gai baten inguruan ezer erabaki, errazegia litzatekeelako bestela jabekide batzuen borondatea ez jasotzea zehaztu ez diren gaien inguruan momentuan erabaki behar izatean. Galdere-erantzunen tartean ezin da gai-ordenean zehaztu bako gaien inguruan ezer adostu, jabekide guztiek duten informazioarako eskubidea urratzea litzatekeelako hori. Adostasunik lortu ez den gaien inguruko ekarpenak egiteko edo komunitateko gaien inguruan galderak egiteko tartea da berez hori. Jabekide guztiek iritzia eman eta botoa eman ahal izatea babestu nahi da landu beharreko gai guztiak gai-ordenean jaso behar izatea derrigortuta. Izan ere, jabekideek gai-ordenean zehaztutako gaien arabera erabaki dezake batzarrera joan edo ez.</p> <p>ONDORIOA: Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrinatzat ezartzen du jabeen batzarretan hartzen diren erabakiek balioa izan dezaten gai-ordenean zehaztu behar direla gaiak, jabe guztiei iritsi dakien haien berri. Hala ere, doktrina eta jurisprudentzia gehientsuenek uste dute, eskaeren eta galderen epigrafe pean hartzen diren erabakiak baliozkotu egin daitezkeela, legezko epean inpugnatu ezean.</p> <p>OSKORRA GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Aneke**, zure 8. urtebetetzean! Ospatzeko desiratzen gaude etxeko denok. Muxu potolo bat.




Zorionak, **June**, martxoaren 15ean 8 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta laguneren partez. Maite zaitugu. Muxuak denon partez.



Zorionak, **Maite**, gaur 6 urte bete dituzulako. Muxu asko familiako guztion partez.



Zorionak, **Maren!** Astelehenean 8 urte! Gozatu eguna! Zortzi tirakada belarritik, eta zortzi patxo!



Zorionak, **Oinatz**, eguaztenean urteguna izan zenuelako. Muxu bat eta segi beti bezain jator, etxekoen eta laguneren partez.



Zorionak, **Maddi** eta **June**, igandearen 9 urte beteko dituzuelako. Asko maite zaituztegu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jon Aranoa
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 047 337
Aukibeharrik ezarritak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Alegoindegi zerbitzua doakigu.
Datu ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162




- IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH SMS25AI05E
ONTZI-GARBIGAILUA

A
T
G

E

499 €



- 12 zerbitzu
- Aqua Stop sistema
- Vario speed funtzioa
- Ecosilence motorra
- Kristalak babesten ditu
- Hatz-marken kontrako herdoilgaitza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

10 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Antzerkia: 'Familia sarekada'. Vaiven Produksioak eskutik, Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude www.herrikoantzokia.eus webgunean.

11 ZAPATUA

11:00 Zineforuma: 'En los márgenes'. Mendaroko Tratu Onen taldeak antolatuta, Edurne Izagirre psikologoak gidatuko du saioa. Mendaroko Jubilatuen ondoko lokalean.

12:00 Hitzaldia: Ramadan. Asociacion Cultural Onda Euskadiko kideek emango dute Aita Agirre kulturgunean. Ondoren mokadutxoia egingo dute Marokoko jakiekin.

17:30 Berdintasun Scape Rooma. Mendaroko Gaztelekuan.

12 DOMEKA

10:00 Umeentzako zuhaitz landaketa. Mintxetako aparkalekuan batuko dira.

11:00 Elgoibarko pala txapelketa antolatzeko bilera irekia. Lagunak pilota eskolak deituta, txapelketa antolatzeko prest daudenen boluntarioentzako. Ibai Ondo erjatexean.

11:00 Aurreku txapelketa. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

16:30 Eskolarteko Xake Txapelketa. Zubi Ondo elkarteak Pista Beltzean duen lokalean. Izen-ematea ordu erdi aurretik.

18:00 Umeentzako filma: 'The snow queen'. Mendaroko San Agustin kulturgunean

15 EGUAZTENA

19:00 Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

16 EGUNA

18:00 Emakumeen Topaketa, kafe tertulia formatuan.

Mendaroko jubilatuen ondoko lokalean.

18:00 Guraso eta hezitzaileentzako tailerra: 'Zer irakurriko dugu etxean, nola aukeratu liburu aproposak'. Dorleta Kortazar ipuin kontalariarekin, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:00 Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

17 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Kontzertua: Go!Azen. Herriko Antzokian.

18:30 Zine foruma: 'El orden divino'. Lilan.

22:00 Motxailen aterpea bertso saioa, Mendaron. San Agustin kulturgunean.

Zinea

'Almas en pena de Inishering'

11 zapatua: 19:00 / 22:15
12 domeka: 19:00
13 astelehena: 21:00




'Asterix y Obelix y el reino medio'

12 domeka: 16:30



'Laburbira'

15 eguaztana: 21:00 (doan)



Eta, Debabarrenean zer?

**Sagardo Eguna, Ermuan
Martxoak 11, zapatua**

Ermuko Gazte Asanbladak antolatuta, sagardotegi desberdinetako sagardoa dastatzeko aukera egongo da Ermuko plazan.



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

MARTXOA

- 10 BARIKUA
- 11 ZAPATUA
- 12 DOMEKA
- 13 ASTELEHENA
- 14 MARTITZENA
- 15 EGUAZTENA
- 16 EGUENA
- 17 BARIKUA

Egunez

- Fernandez
Yudego
Yudego
- Oruesagasti
Barrenetxea
- Ibañez
Garitaonandia
Arriola

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
 Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:
 Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:
 Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384



**Aukera paregabea
sukalderako
nahiz jangelarako
mahai zabalgarri
eta aulki tolesgarri
eta pilagarrietan.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



errigora
errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura


**Bat egin
Errigora
Balioekin**



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

**Bete ezazu
despentsa
urte guztirako**





Aste honetako erretratu zaharra Txomin Mujikak bidali du BARRENERA. 1966ko sanbartolomeetan aterata dago, hain zuzen ere, San Bartolome Egunean. Garai hartan urtero etortzen ziren Ansola Zelaia anaiak Elgoibarko jaietara txistua jotzera. Elgoibartarrak ziren, baina Markinan bizi ziren. Txistulari bikainak izan ziren, eta hainbat txapelketa ere irabazi zituzten. 1966ra arte beraiek jartzen zioten doinua San Bartolome Eguneko aurrekuari. Urte hura izan zen azkena, eta handik aurrera, herriko txistulari gazteek hartu zuten erreleboa.

Ezkerretik hasita, atzean: Felix (♣) txistu lehenengoa, Jose (♣) txistu bigarrena eta zuzendaria, Luis (♣) txistu handia, Julian (♣) atabala. Aurrean: Jon Arrieta, Txomin Mujika eta Ricardo Gorriti.



Jarraitu gaitzazu **BARRENEK** Youtuben duen kanalean!



Into the ice espedizioa, argazki argazki



'Gu herriko STEM emakumeak' kale erakusketan



Inauterietako maritzena Elgoibarren (2023-02-21)



Euskal inauteriak 2023



Inauteri zapatua Elgoibarren 2023



Inauteriak Mendaron 2023



Sasikopetzu, Mendaron



Musika eskolako inauteria Elgoibarren.



Santa eskean Mendaron 2023



Santa eskean, familien taldearekin



Mendaroko eskolako santa eskea



SANTA eskea IKASTOLA 2023



www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

ZERGATIK ETA ZERTARAKO EUSKALDUN?

egiten duguna pentsatzeko, pentsatzen duguna egiteko

"Herrigintzaren behelainotik"

Jon Sarasua

Martxoak 23, osteguna

19:00

Kultur Etxeko hitzaldi-gelan



*"Cultura vasca vs Euskal kultura:
posible da euskal kultura erdaraz?"*

Ibai Iztueta

Martxoak 30, osteguna

19:00

Aita Agirre Kulturgunean



Antolatzailea:

ELGOIBAR KULTURA
ZENTROA



Laguntzailea:

ELGOIBAR
UDALTSUNA